



JAKES LARRE

**Bea Sallaberry**

EUSKARA IRAKASLEA ♦

## Jardiner, c'est résister

ETXEBIZITZAREN JABE IZATEKO esperantza oraindik duten baionesek badute, doa deskart, azken *El dorado*: Séqué auzoa, azken urteetan osoki sortua. Eko-azua nahi luke eta perspektiba horretan eztabaidagai izan da proiektua.

Bada baratze kolektibo tipi bat han: urbanizazioari errekuperatu behar izan gabe, urbanizaziotik salbatu den lur peza. Espantuko gauzarik ez bada ere, zirrargarria zaidan txokoa da.

Oihan bazterrean kausitzen da, haritzondo ikaragarrien maldan eta berriki landatu fruitu arbolondoen artean, hesi garbiz babestu paradisu zatia. Eden horrek badu *Kolkebozetik*, jabea herria da, probetxua erabiltzailena eta autogestioan kudeatua da: inguruko bizitegiatiko jendez osatu komunitateak du kudeatzen. Aterpea denena da eta han pruntki lerrokatu daude denen tresnak, sarde, aitzur eta oraindik enetzat funtzio sekretuko zenbait gauza, bakoitzak txandaka erabiltzekoak. Badira lur alor ttipiak, familiako bana, fizela txirikordaz zedarrituak. Inguruetan, lur sail pribatuaren alboan, parte komunak dira, guziek guzientzat landuak. Noizbehinka, ametsarazten dit, hogeit urte nituenean bezala, mundua alda daitekeela, sistema enpoildu eta antolaketa libertarioan gara gaitezkeela.

*Bada giro oso bat!  
Auzo artekoa,  
elkartasunezkoa,  
elkarrengandik  
ikastekoa. Alabaina,  
denak baratzezain  
hasiberriak, nehorik  
ez du sekulakoa  
ateratzeko asmorik*

Gainera bada giro oso bat! Auzo artekoa, elkartasunezkoa, elkarrengandik ikastekoa. Alabaina, denak baratzezain hasiberriak, nehorik ez du sekulakoa ateratzeko asmorik, galdetzen diogun gauza bakarra da zerbaixka eskaintzea, egin indarren truk. Denbora-pasako aitzakia da eta mundu nahas-mahasgarritik ihes egitekoa, eta bide batez, ekartzen du auzoko jende zenbaitekin trukatzeko, birgizarteratzea hots. Dena da egitekoa oraino eta plazera da, goiz izanik ere eguzkiak jadanik kitzikatzen zaituela, izerditzea iraulen eta lur porroskatzeko. Betegarria da lur gizen sailen artetik burua altxatu eta nihaur bezain ez jakituna (ignorantzia ere kolektiboa baita) den ondoko lur saillekoarekin hizketan aritzea: gauzak nola antolatu, ereiteko garaiak, bareen neurri ikaragarria.

Eta goxoa da amestea sukaldeko mahai iskinen, igande goizez, eguerdiko apairuko, nola bihikatuko dituzun zure ilar biribil teka bildu berriak, hazi berde bixiak ontziratu arau hauen berdura usain fresko lerdanak gela osoa ziprztinduko duela.

Lurra, autogestioa, indarra eta saria ukaitea, integratzea, ausatzea. Maila bat baino gehiagotan zoriona eragiteko tresna bat. *Jardiner, c'est résister.* ■



DANI BLANCO

**Itxaro Borda**

IDAZLEA

## Hor daude

ETA EUSKARA plantakoan mintzo dira. Guztia dute alabaina herritar zintzoen xarmatzeko. Euskal Herrian ere Fronte Nazionala indartuta atera da Europako hauteskundeetan, Frantzia bezalaxe funtsean. Goizon nazka nabaritzen dut, ihes egiteko gogoa, baina gorotz urrintsuak zikintzen ez duen gunerik ez da gehiago. Europa etsai omen dute. Laborariek, nagusiek, ikasleek eta erakundeek alta, Europarengandik garapenerako diru mordo eskuratzen dute. FN bozka halatan haserrea azaltzeko baliabidea liteke.

FN alderdiari bozaren emateko intenzioa premiazkoa ote den uste dut. Auzoa-

rekiko gorrotoa dago oinarrian, etengabe-ko insatisfakzioa, frustrazio morbidoa, antisemitismoa, islamofobia, homofobia, misoginia eta intolerantzia ikusgarria: telebistan irabazle frontistak ez zion hitz bihirik uzten arerio ekologistari.

FN ari da boterearen mailak eskuratzen. Denbora badu eta jendaldee sinetsarazten zaie bozkatzeak ez duela balio, pentsatzeak are gutxiago, aniztasunak estatuaren handitasuna mehatxatzen duela eta larderia dela ezinbesteko goberna tresna.

*On est mal.*

Gaizki gaude. ■

